

du harreman berezirik etikarekin. Ezta ere bestearekin *komunio* modu bat izatearekin. Ez da norbere burua ahaztu eta beste horren sakralizazio bat, ezta ere Goetheren *femenino eternoa* eta horrelakorik».

Badiouk amodioaren egungo komifikazioaren kontra dihardu liburuan. Meetic eta halako tresna antigoalekoetan adostutako ezkontzekin alderatuz, egungo kapitalismoak maitasuna supermerkatuan salerosten duela dio filosofoak. Haren ustez, kontrolpean eskaintutako maitasuna ez da maitasun. Godarden moduan, maitasuna subertsibotzat jotzen du, baina harena ez bezala, Badiouren begirada ez da malenkoniatsua. Badiouk erromantizismoaren idealizazioari eta eszeptizismoaren begiradari alternatiba bat eskaini nahi die, Rimbaudek zioenari jarraituz: «Maitasuna berrasmatu behar da». Rimbaud poetaz gain, Fernando Pessoa poeta dakar Badiouk elkarriketara. Hark zioen maitasuna ideia bat dela, eta, Badiouren *Éloge de l'amour* irakurritz, ulertzen dugu nola gorpuzten den ideia hori. Dena den, zailtasunak eta erronkak azpimarratzen ditu, zeinak amodioaren komifikazioak ez dituen kontuan hartzen. Maiz, zailtasun horiek hizkuntzari dagozkio. Badiouk dioenaren adibide aproposa Gorka Urbizuren azken diskoan legoke (*Hasiera bat*, 2024). *Besterik ez kantan zera* dio: «Batzutan *I love you*/ Idazten diogu elkarri/ *Maite zaitut* batek/ Ikaratzen gaitu». Godardek 71 urte zituen filma eta poema liburua egin zituenean; Badiouk, berriz, 72 urte elkarriketa garaian. Zahartzaroak aukera ematen die bizitzan izandako maitasunak eta galerak eta horiek emandako orbanak berrikusteko. Bizitzak ematen die sakontasuna euren begiradei, eta, horregatik, maitasuna hasieretatik haratago ikusten dute. Bai Godard bai Badiou irakurtzean, gogora datozkigu hainbat liburu, artelan, film edota kanta maitasunaren ahalmen eta ezintasunei buruzkoak. Hala nola Paul Thomas Andersonen *Licorice Pizza* filmean (2021) ezohiko maitasun istorio bat dugu. Hitzontzi hutsa den Gary gazteak bere kuttunari telefonoz deitu eta txintik esaten ez duen dei isilean den-dena esaten du. Badaude hitzik gabeko isiluneak eta hitzez jositako isiluneak, oso bestelakoak bata eta bestea. Azkenengo formulazioan esaten ez dena edota zitroin urez idazten dena ezin ditu algoritmoak irakurri: (maitasuna) besterik ez. ●

KRITIKA

Itsaso oso bat tarteko

Irati Majuelo

Giorgos Seferis poetaren hautaketa lana egin eta euskarara itzuli du Maite Lopez Las Herasek. 30eko Greziako hamarkadako belaunaldiaren parte eta Literatura Nobel sariaren irabazle, heleniarren artean XX. mendeko poeta ezagunenetakoa da. Greziarra bai, baina Urtan –gaur egungo Turkian– jaioa, gaztetan erbesteratu zen lehen aldiz, eta ordutik batetik bestera mugitu zen atzerrian, kontsul, kontseilari eta enbaxadore lanetan, batik bat. Hain zuzen ere, haren herriarekin distantzian zuen harremanak norabidetu zuen Seferisen idazkera. «Nire etxea irla bat da», esan omen zuen behin, eta bere poesia ulertzeko metafora ederra sortu zuen horrela.

Bakardadea, etsipena, arrotasuna, itzulera; poeta greziarraren obra



'MUNDUKO POESIA KAIERAK'

Egilea: Giorgos Seferis.

Itzultzailea: Maite Lopez Las

Heras.

Argitaletxea: Susa.

zabalean behin eta berriz aurki daitezkeen gaiak dira horiek. Erbesteak eragindako oinazea eta desesperantza dira, beraz, Seferisek aberria pentsatzeko, sentitzeko eta

adierazteko aurkitzen duen bidea. Izan ere, nostalgiatik urrun, gerlen ondoriozko deserriak ez du idealizazio eta ameskeriatarako tarte handirik uzten. Itzulera posibleak irudikatzean ere, etxera iristen ez diren gutunak edota arraunak hautsita dituzten txalupak baino ez ditu imajinatzen.

Sinbolismo nabarmeneko poesia da Seferisena, eta aipaturiko bidetik, haren jaioterri zen Mediterraneoko ezaugarri nagusiek presentzia handia dute: ura, itsasoa, hego haizea, argia, hondartzak. Alabaina, poetaren atsekabea transmititzeko, mugimendurik ezarekin edo blokeoarekin lotzen dira sarri elementu horiek. Putzu hutsak, ur geldiak, iturri lehorrak aipatzen ditu Seferisek, «gelditutako oihartzun hutsa, gure bakardadearen pareko/ gure maitasunaren pareko, gure gorputzen pareko». Kontraste horren adibide da bilduma honetan

aurki daitezkeen *Uharka* poema, adibidez.

Itsasoa da, esan bezala, erbestea azaltzeko poetak darabilen beste motibo garrantzitsuetako bat. Itsasoaren bidez azaleratzen dira bidaia posibleak, handitasunean txiki sentitzearen ideia, bakardadearen sakontasuna edota urruntasunak eragindako mina ezin ulertzea. Oroitzapenetako itsasoa, deserriko distantzia markatu duena eta helduaroan Greziara itzultzean topatzen duena desberdinak dira, ordea: «Itsasoa: nola bihurtu zen horrelakoa itsasoa?».

Ez da poesia erraza poeta greziarrarena, erritmo zati-katu eta sintaxi konplexukoa sarri, bildumako lehen erdiko poemetan, bereziki. Hala ere, edo horregatik, merezi du patxadaz murgiltzea paisaia mediterraneoetan, ahal dela idazlearen nondik norakoak apur bat irakurrita, Seferisen irrikaz eta minez zein itzultzailearen esfortzuaz gozatzeko. ●

KRITIKA

Lukasen adina...

Imanol Mercero

Desberdin ikusten dugu gutako bakoitzak. Nortasuna, adina eta pentsamoldea desberdinak ditugu, eta honi gehitu behar dizkio gu daltonismoa, begi-lauso edota bestelako ezaugarriak.

Ados al zaude aurreko paragrafoko baieztapenarekin? Ni ez erabat, ikusmen fisikoa eta psikologikoa plano berean jartzea nahasgarria iruditzen zaidalako. Album ilustratu honek, halere, plan teamendu hau egiten digu.

Hemeretzi ilustrazio handik osatzen dute proposamena, liburuak barnean dituen orri-biko guztiak hartzen dituen. Soilik liburuaren azala eta kontrazala gelditu dira aparte, euren ohiko funtzioa betetzen (une honetan kome ni da gogoraztea liburuetan bereizi egiten direla *azala* eta *portada*, lehen hori liburuaren kanpoan eta aurrealdean



'NON BEGIA, HAN EGIA'

Idazlea: Victor Belmont.

Ilustratzailea: Victor Belmont.

Itzultzailea: Julio Soto Ezkurdia.

Argitaletxea: Txalaparta.

dagoena izanik, eta bigarren hau barruan dagoena, titulua eta egile nagusiak nabarmentzen).

Jakintza liburua da, beraz, bere helburua formatiboa izanik. Informazioa katalogo eran eskaintzen zaigu, ilustrazio bakoitzean «ikuskerak» desberdin bat eskainiz. Umorezko tonuan eraiki dira, errepikapenaren bidez, egitura berberaren aldaeretan. ●

KRITIKA

Ezpatarik gabe

Imanol Mercero

Gozoak, dibertigarriak eta herabeak diren abenturen zaleei eskaintako bigarren titulua plazaratu Alvaro Ortizek.

Jarraitzen du lehenengo Iratxo txikia eta shatranj partida haren ezaugarriekin, bai formalki zein narratiboki.

Irudigintzaren trataerari dagokionez, koloreen bidez ematen zaie gauzei forma eta bolumena, eta marren bidez ezartzen dira forma horien ingeradak eta zehaztasunak. Sinpletasuna da nagusi, ordea, eta, beraz, zehaztasunak urriak dira. Orrialdeko lau bineta —inoiz ez gehiago— eskainita eta pertsonaiak plano orokorretan marraztuta, argitasunez ikusten ditugu eszenak, nahiz eta bunbuilo zein narratzaile testu askotxo egon.

Kontakizunari dagokionez, heroi zintzoaren ohiko inimizia abentura dugu, bere



'IRATXO TXIKIA ETA IBARREKO MUNSTROA'

Idazlea: Alvaro Ortiz.

Ilustratzailea: Alvaro Ortiz.

Itzultzailea: Bego Montorio.

Argitaletxea: Astiberri.

burua heziko duena erronka berriei aurre egiteko, ez bereziki alderdi fisikoetan baizik eta enpatian, abegikortasunean, umiltasunean eta halako dohainetan. Zazpi kapitulutan eraikita dago kontakizuna, eta, zehazki, kapitulu bakoitzean inimizia ipuinen fase bati dagokio.

Azkenik, nabarmentzekoa da boladan dauden gag moldeak nagusi direla elkarriketetan. ●